# Beste Iragarpen Ofizial Batzuk


**HERRIZAINGO SAILA**

IRAGARPENA, Herritarren Segurtasunaren Babesari buruzko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoan ezarritakoa haustearren irekitako zigor-espediente hauetan Segurtasun sailburuordearen Kabinetearen zuzendariak emandako Erabaki Proposamenak jakinarazteko dena. 19579

IRAGARPENA, Herritarren Segurtasunaren Babesari buruzko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoan ezarritakoa haustearren zigor-espedienteak irekitzen dituzten Herritarren Segurtasunerako zuzendariaren Erabakiak jakinarazteko dena. 19580

**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA**

IRAGARPENA, Administrazioarekiko auzi–errekurtsoaren 2170/97–2 zenbakia duen espedientea bidaltzeko eta horretan interesaturik dauden gainerakoei epea jartzeko dena. 19581

**BIZKAIKO FORU ALDUNDIA**

IRAGARPENA, Herrilan Sailaren abenduaren 3ko 6174/97 Foru Aginduarena. Foru Agindu horren bitartez «Iurretan N-634 errepidearen taiuketaren aldaketa eraikitzeko proiektua» lanaren egiterapenak eragindako ondasun eta eskubideak okupatzeko nahitaezko jabegokentze espedientearen bigarren fasea hastea erabakitzen da. 19582


# Otros Anuncios Oficiales


**DEPARTAMENTO DE INTERIOR**

ANUNCIO, por el que se notifican las Propuestas de Resolución del Director del Gabinete del Viceconsejero de Seguridad, instructor de los expedientes sancionadores que abajo se indican, incoados en relación a infracciones de la Ley Orgánica 1/1992, de 21 de febrero, sobre Protección de la Seguridad Ciudadana. 19579

ANUNCIO por el que se notifican las Resoluciones del Director de Seguridad Ciudadana, incoatorias de los expedientes sancionadores abajo indicados, en relación a infracciones de la Ley Orgánica 1/1992, de 21 de febrero, sobre Protección de la Seguridad Ciudadana. 19580

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN**

ANUNCIO de remisión de expediente administrativo y emplazamiento a terceros interesados en el recurso Contencioso-Administrativo número 2170/97-2. 19581

**DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA**

ANUNCIO de la Orden Foral n.º 6174/97, de 3 de diciembre, del Departamento de Obras Públicas, por la que se resuelve iniciar la segunda fase del expediente expropiatorio, señalar fechas para el levantamiento de las actas previas a la ocupación y someter a información pública la relación de bienes y derechos afectados por la ejecución del «Proyecto de construcción de modificación del trazado de la carretera N-634 en Iurreta». 19582


# Xedapen Orokorrak

## HERRIZAINGO SAILA

### Zk-6282

296/1997 DEKRETUA, abenduaren 16koa, Jendaurreko ikuskizunak eta jolas jardueren ordutegiak eta jarduera horiei buruzko beste alderdi batzuk ezartzen dituena Euskal Autonomi Elkartearen eremuan.

Jendaurreko ikuskizunak eta jolas jarduerak arautzen dituen azaroaren 10eko 4/1995 Legeak, Autonomi Estatutuaren 10.38 atalean ezarritako eskumenaren barruan onartutakoak, 5.d eta 20.1 atalen bidez eskumena ematen dio Jaurlaritzari jendaurreko ikuskizunak eta jolas

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE INTERIOR

### N°-6282

DECRETO 296/1997, de 16 de diciembre, por el que se establecen los horarios de los espectáculos públicos y actividades recreativas y otros aspectos relativos a estas actividades en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La Ley 4/1995, de 10 de noviembre, de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas, aprobada en el ejercicio de la competencia prevista en el artículo 10.38 del Estatuto de Autonomía, faculta al Gobierno en sus artículos 5.d) y 20.1 a determinar reglamentariamente el hora-

jardueren ordutegi orokorra arauz zehazteko, honako hauek kontuan izanik: zein ikuskizun edo jarduera mota den, zein garaitan edo urteko zein sasoitan egiten den eta laneguna, jaiegun bezpera edo jaieguna den.

Era berean, behin suposamenduak eta prozedura ezarri ondoren, 20. atal horren 2. idazatian ezarri denez, udalek ahalmena izango dute ordutegi bereziak baimentzeko herriko jaietan, jaiegun berezietan edo arrazoi turistikoak kontuan hartuz.

Aniztasun hori beharrezkoa da tokian tokiko berezitasunetara egokitzeko, baina homogeneotasun, koherentzia eta oreka irizpide global batean sartu behar da Euskal Autonomi Elkarteko ezaugarri sozial, juridiko eta ekonomikoak kontuan hartuz. Era berean, saihestu egin beharko dira interesen gatazka ekar dezaketen jarduerak eta bidezkoak diren jolas eta dibertimenduzko jardueren berezko zentzua hutsaldu dezaketenak.

Bestalde, gizarte harremanen eta ohituren dinamika ez dator beti bat beste herritar batzuen atseden beharrizanekin, hori dela eta, Administrazioak zenbait muga jarri behar izaten ditu elkarbizitza eta gizarte bakea bermatzeko, aisialdi jarduerak (guztiz bidezkoak) eta herritar guztiei zor zaien errespetua bateratuz.

Azkenik, lehenago araudiak ezartzean jasotako esperientziak dioskunez, komenigarria da ordutegi eta jarduera talde ondo bereiztuak ezartzea, horrela, jarduera horien zaintza eta kontrol egokia egin ahal izateko.

Ondorioz, Estatu Kontseiluarekin bat etorriz, Herrizaingo sailburuaren proposamenez, Euskal Herriko Jendaurreko Ikuskizunak eta Jolas Ihardueretarako Kontseiluak eta Kontsumo Batzorde Aholkuemaleak aldeko irizpena eman dutenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 1997ko abenduaren 16an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*1. atala.–* Helburua.

Dekretu honen helburua da Euskal Autonomi Elkartearen eremuan jendaurreko ikuskizun eta jolas jardueren ordutegiak arautzea, bai eta jarduera horien beste alderdi batzuk ere, ordutegiekin zerikusia dutenak hain zuzen.

*2. atala.–* Ostalaritza eta jendaurreko ikuskizunen lokalak.

Ostalaritza eta jendaurreko ikuskizunen lokal edo instalazio iraunkorrek, ondoko zerrendan agertzen direnek hain zuzen ere, honako ordutegi orokorra izango dute zarratzeko orduari dagokionez, beti ere establezimenduen udal lizentzietan ezarritako jardueren arabera, eta zergari dagokionez deklaratutako jarduera alde batera utzita:

1. taldea.– Berariaz adin txikikoentzat baimendutako lokal eta instalazioak, edo, sukaldaritza jarduera

rio general de los espectáculos públicos y actividades recreativas, atendiendo a consideraciones de tipos de espectáculos o actividades, época o estación anual y distinción entre días laborables, vísperas de festivos y festivos.

Asimismo, el apartado 2 del citado artículo 20 establece la facultad de los Ayuntamientos para autorizar horarios especiales con ocasión de sus fiestas patronales, otros acontecimientos festivos de carácter general o consideraciones turísticas, una vez establecidos reglamentariamente los supuestos y el procedimiento.

Esta pluralidad, necesaria como elemento de adecuación a las especificidades locales, debe enmarcarse dentro de un criterio global de homogeneidad, coherencia y equilibrio en el ámbito social, jurídico y económico que debe prevalecer en esta materia en el conjunto de la Comunidad Autónoma del País Vasco, evitando desigualdades y situaciones contradictorias o divergentes que puedan acarrear conflictos de intereses y desvirtuar las legítimas actividades de recreo y diversión.

Por otra parte, la continua dinámica de las relaciones sociales y costumbres, que no siempre se acomodan a las necesidades de descanso de otros sectores de la población, conlleva que la Administración introduzca una serie de limitaciones a fin de garantizar la convivencia y la paz social, compatibilizando las legítimas actividades de ocio con el necesario respeto a los derechos de todos los ciudadanos.

Finalmente, la experiencia en la aplicación de normativas anteriores aconseja establecer unos horarios y grupos de actividad claramente diferenciados, a fin de permitir una adecuada vigilancia y control de dichas actividades.

En su virtud, de acuerdo con el Consejo de Estado, a propuesta del Consejero de Interior, habiendo emitido informe favorable el Consejo de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas, así como la Comisión Consultiva de Consumo, y tras previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 16 de diciembre de 1997,

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Objeto.

Es objeto del presente Decreto la regulación de los horarios de los espectáculos públicos y actividades recreativas en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, así como otros aspectos de los mismos relacionados con los horarios.

*Artículo 2.–* Locales de hostelería y de espectáculos públicos.

Los locales o instalaciones permanentes de hostelería y de espectáculos públicos que a continuación se relacionan, tendrán el siguiente horario general de cierre, en función de las actividades especificadas en las correspondientes licencias municipales de establecimiento, con independencia de la actividad fiscalmente declarada:

Grupo 1. Locales e instalaciones autorizados específicamente para menores de edad, o con autorización para

izan barik, alkoholik gabeko edariak eta janariak emateko baimena dutenak, esaterako:

– gazteentzako dantzalekuak eta diskotekak, dastalekuak, izozkidendak, txokolategiak, txurrodendak, kruasandendak, te aretoak eta asimilagarriak .............. 22:30etan.

2. taldea.– Alkoholdun edariak emateko baimena duten lokal eta instalazioak edo sukaldaritza jarduerak egiteko baimena dutenak, esaterako:

– tabernak, ardandegiak, barrak, kafe-barrak, snack-ak, jatetxeak, erretegiak, kafetegiak, autozerbitzuak, janari-etxeak, txokoak, elkarte gastronomikoak, sagardotegiak eta asimilagarriak ................ 00:30etan.

3. taldea.– Dantzarako pista izan barik, jarduera berezi gisa, musika izateko baimena duten lokalak eta instalazioak, esaterako:

– taberna bereziak, whiskytegiak, klub-ak, bar amerikarrak, pub-ak, disko-barrak, karaokeak eta asimilagarriak .................................................... 02:00etan.

4. taldea.– Dantzarako pista eta guzti musika izateko baimena duten lokal eta instalazioak edo ikuskizunak egiteko baimena dutenak, esaterako:

– dantzalekuak, diskotekak, kafe-antzokiak, ikuskizundun jatetxeak eta asimilagarriak ........... 04:00etan.

*3. atala.–* Jokorako lokalak.

1) Jokorako lokal edo instalazioak zarratzeko ordutegi orokorra hauxe izango da:

1. taldea.– Jolas aretoak:. 22:30ean.
2. taldea.– Joko aretoak: 00:30ean.
3. taldea.– Bingo aretoak: 03:00etan.
4. taldea.– Jokorako kasinoak: 04:00etan.

2) Dekretu honetan ezarritakoarekin bat etorriz, jolas aretoen ordutegia zabaltzeko baimena emanez gero, denbora tarte gehigarri horretan, adin-nagusikoak bakarrik sartu ahal izango dira, eta kanpoaldean ondo ikusteko moduan errotulo bat jarri beharko da hori adieraziz.

3) Atal honetan aipatutako jokorako lokal eta instalazioen ordutegian berauen zerbitzu osagarriak sartzen dira. Lokal edo instalazio horiek zabaltzeko orduak jokoari dagokion sektoreko araudian ezarriko dira.

*4. atala.–* Behin-behineko instalazioak.

2. atalean azaldutako jardueraren bat garatzen duten behin-behineko instalazio edo egituretan, iraunkorretarako finkatu den erregimen berbera aplikatuko da, dagokien udal lizentzian eman zaien jardueraren arabera.

*5. atala.–* Beste jendaurreko ikuskizun eta jolas jarduera batzuk.

1.– Indarreko legeriaren arabera, baimen administratiboa behar duten jendaurreko ikuskizun eta jolas jardueren hasiera eta amaiera orduak, baimen erabakian zehaztuko dira.

expender bebidas sin alcohol y alimentos sin que suponga actividad de restauración, tales como:

– salas de baile y fiestas juveniles, discotecas juveniles, degustaciones, heladerías, chocolaterías, churrerías, croisanteries, salones de té y asimilables ........ 22:30 h.

Grupo 2. Locales e instalaciones con autorización para expender bebidas con alcohol o ejercer actividades de restauración, tales como:

– tabernas, bodegas, bares, cafés-bares, snacks, restaurantes, asadores, cafeterías, autoservicios, casas de comida, txokos, sociedades gastronómicas, sidrerías y asimilables ................................................. 00:30 h.

Grupo 3. Locales e instalaciones con autorización para disponer, como actividad especial, de música sin pista de baile, tales como:

– bares especiales, whiskerías, clubs, bares americanos, pubs, disco bares, karaokes y asimilables .............................................. 02:00 h.

Grupo 4. Locales e instalaciones con autorización para disponer de música con pista de baile o realizar espectáculos, tales como:

– salas de fiestas, salas de baile, discotecas, cafés-teatros, restaurantes con espectáculos y asimilables 04:00 h.

*Artículo 3.–* Locales de juego.

1) El horario general de cierre de los locales o instalaciones de juego será el siguiente:

Grupo 1. Salones recreativos: 22:30 h.
Grupo 2. Salones de juego: 00:30 h.
Grupo 3. Salas de bingo: 03:00 h.
Grupo 4. Casinos de juego: 04:00 h.

2) En caso de autorizarse, conforme a lo dispuesto en el presente Decreto, ampliación de horario a los salones recreativos, durante este tiempo complementario el acceso a los mismos estará limitado a los mayores de edad y deberá colocarse un rótulo claramente visible en el exterior del local que indique esta limitación.

3) El horario de los locales o instalaciones de juego a que se refiere el presente artículo incluirá, asimismo, el de sus servicios complementarios. Los horarios de apertura de dichos locales o instalaciones serán los establecidos en la normativa sectorial correspondiente en materia de juego.

*Artículo 4.–* Instalaciones eventuales.

A las instalaciones o estructuras eventuales, portátiles o desmontables que desarrollen alguna de las actividades especificadas en el artículo 2 les será aplicado el mismo régimen horario que el fijado para las permanentes, en función de la actividad que les haya sido autorizada en la correspondiente licencia municipal.

*Artículo 5.–* Otros espectáculos públicos y actividades recreativas.

1.– Los horarios de comienzo y finalización de espectáculos públicos y actividades recreativas que, según la normativa vigente, requieran autorización administrativa se especificarán en la resolución de autorización.

2.– Dena den, 4/1995 Legearen 16. ataleko 2. zenbakiko a, b eta c hizkietan ezarritakoarekin bat etorriz, baimen administratiboa behar duten jendaurreko ikuskizun eta jolas jarduerak amaitzeko ordua 02:00ak izango dira, dekretu honen 7. atalean xedatutakoaren kalterik gabe.

*6. atala.–* Ordutegien publizitatea.

Dekretu honen 2. eta 3. ataletan zehaztutako lokaletan, hain zuzen ere, dagokien establezimendu lizentziaren babespean egon eta geroko baimen administratiboa behar ez dutenetan, irekitzeko eta ixteko orduei buruzko informazioak agertu beharko du: ikusteko moduan, euskarri zurrunean, gutxienez 25 cm. x 14 cm.ko neurriak dituela eta dekretu honen I eranskinean dagoen ereduaren arabera egina.

*7. atala.–* Ordutegi berezien erregimen orokorra.

1.– Lokal eta instalazioak zarratzeko orduei eta dekretu honetan azaldutako beste ikuskizun edo jarduera batzuen amaiera orduei dagokienez:

a) Ordu bat beranduago zarratuko dira ostiral, larunbat eta jaiegun bezperetan.

b) Ordu erdi beranduago ekainaren 1etik irailaren 30era.

c) Dekretu honen 12. atalean ezarritakoaren kalterik gabe, ordu bi beranduago kasu hauetan:

– Udal bakoitzeko zaindariaren jaietan. Ondorio hauetarako, zaindariaren jaitzat hartuko dira udal bakoitzak bere udal mugartean ofizialki ezarritakoak.

– Aste Santuko ostegunetik astelehenera, Ihauterietako ostegunetik asteartera eta, Gabonetan, abenduaren 21etik urtarrilaren 6ra.

– Azoka, sariketa, erakusketa edo antzekoak daudenean, baldin eta udalak berak edo Autonomi Elkarteko organo eskudunak interes turistikodun gisa kalifikatu baditu; hori guztia, egun zehatz batzuetan eta urte bakoitzeko hamar egunean gehienez ere.

2.– Ordutegien luzapen orokorrak, atal honetako aurreko idazatietan aipatutakoak, metagarriak izango dira.

*8. atala.–* Ikuskizun eta jardueren amaiera eta jendea kanporatzea.

1) Zarratzeko ordua heltzean, dekretu honen 2, 4 eta 5. ataletan aipatutako lokal eta instalazioetan ez da bezerorik izango, eta bertan lokaleko langileak eta txukuntze eta garbiketa lanetan daudenak egon ahal izango dira.

3. atalean aipatutako lokaletan, berauontzat ezarri den zarratzeko ordutik aurrera, jolas aretoetan eta joko aretoetan jokorako makina eta aparatu guztiek funtzionamendutik kanpo egon beharko dute. Bingo aretoetan eta jokorako kasinoetan, ezin izango da bingo partidarik edo kasinoetan baimendutako jokorik egin eta, hala badagokio, joko makinek zerbitzutik kanpo egon beharko dute.

2.– No obstante, los espectáculos públicos y actividades recreativas que precisen autorización administrativa de conformidad con lo previsto en el artículo 16, número 2, letras a, b y c de la Ley 4/1995, tendrán como hora límite de finalización las 02:00 horas, a salvo de lo dispuesto en el artículo 7 del presente Decreto.

*Artículo 6.–* Publicidad de los horarios.

En los locales especificados en el artículos 2 y 3 del presente Decreto, amparados por la correspondiente licencia de establecimiento y cuyas actividades no estén sometidas a ulterior autorización administrativa, figurará en lugar visible información sobre el horario máximo de apertura y cierre, en soporte rígido, con unas medidas mínimas de 25 cm. por 14 cm. y según modelo que se incluye como Anexo I al presente Decreto.

*Artículo 7.–* Régimen general de horarios especiales.

1.– El horario de cierre de los locales e instalaciones y finalización de otros espectáculos o actividades a que se refiere el presente Decreto se incrementará:

a) Una hora los viernes, sábados y vísperas de festivos.

b) Media hora desde el 1 de junio al 30 de septiembre.

c) Dos horas, sin perjuicio de lo establecido en el artículo 12 del presente Decreto:

– Con ocasión de las fiestas patronales de cada municipio. A estos efectos, se entenderán por fiestas patronales las establecidas oficialmente por cada Ayuntamiento en su término municipal.

– De jueves a lunes de Semana Santa, de jueves a martes de Carnavales y desde el 21 de diciembre al 6 de enero en Navidades.

– Con ocasión de otros acontecimientos de carácter ferial, certámenes, exposiciones o análogos, que hayan sido calificados como de interés turístico por el propio ayuntamiento o por el órgano competente de la Comunidad Autónoma, para fechas concretas y con el límite máximo de diez días por año natural.

2.– Las ampliaciones generales de horarios a que hacen referencia los apartados anteriores del presente artículo serán acumulativas.

*Artículo 8.–* Finalización de espectáculos y actividades y desalojo.

1) Llegada la hora establecida para el cierre, los locales e instalaciones mencionados en los artículos 2, 4 y 5 del presente Decreto deberán estar totalmente desalojados de clientes, permitiéndose únicamente la permanencia de empleados del local y las tareas propias de adecuación y limpieza del mismo.

De los locales mencionados en el artículo 3, a partir de la hora de cierre establecida para los mismos, en los salones recreativos y salones de juego deberán estar todas las máquinas y aparatos de juego fuera de funcionamiento. En las salas de bingo y casinos de juego no podrá realizarse ninguna partida de bingo o practicarse ninguno de los juegos autorizados en los casinos, debiendo estar, en su caso, fuera de servicio las máquinas de juego.

Ondorio horietarako, titularrek kontsumizioak emateari uzteko, ikuskizunak bukatzeko eta musika, jokorako makina eta aparatuak, bideoak edo antzerako makinak amatatzeko ordua finkatu ahal izango dute.

2) Dekretu honen 5. atalean zehaztutako ikuskizun eta jolas jardueren kasuan, baldin eta lokal zarratuetan egiten badira, baimen erabakian bertan ezarriko da bukatu ostean jendea kanporatzeko epea, ikuskizun edo jolas jarduerarako baimendutako gehienezko aforoaren arabera.

*9. atala.–* Derrigorrez ixteko epeak eta murrizketak.

1) Jendaurreko ikuskizunak eta jolas jarduerak ezin izango dira hasi 06:00ak baino lehenago, baldin eta sektoreko araudiek ez badute beste ordutegi bat ezarri.

2) Dekretu honen 2. ataleko 3 eta 4. taldeetan azaldutako lokal edo jardueren kasuan, ixteko edo amaitzeko orduaren eta zabaltzeko edo hasteko orduaren artean gutxienez sei orduk igaro beharko dute.

3) Dena den, debekatuta daude musika ekipo edo aparatuen funtzionamendua, ikuskizunak, dantzarako pistak edo antzekoak 09:00ak baino lehenago.

*10. atala.–* Edariak hartzea lokalen kanpoaldean.

1) Udal bakoitzak bere udal ordenantzetan edo terraza edo antzekoentzat emandako lizentzietan ezar litzakeen muga nagusiagoen kalterik gabe, debekatuta dago lokalen kanpoaldean edariak hartzea 22:00etatik aurrera, dekretu honen 7. atalean ezarritakoaren kalterik gabe.

2) Horretarako, kontsumitzaile edo erabiltzaileek izan dezaketen erantzukizuna alde batera utzita, lokaletako titularrek, aipatutako ordutik aurrera, galarazi egin beharko dute bezeroek lokaletik kontsumizioak ateratzea, izan ere, Jendaurreko ikuskizun eta jolas jarduerak arautzen dituen azaroaren 10eko 4/1995 Legearen 34 eta 33. atalak hausteagatik zigortu ahal izango dira.

*11. atala.–* Eusko Jaurlaritzaren ahalmena ordutegi bereziak ezartzeko.

Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak dekretu honetan ezarritako ordutegien erregimen orokorra zabaltzea baimendu ahal izango du, honako kasuetan eta dagokion erabaki administratiboan ezarritako mugekin:

1) Hirigunetik kanpo edo errepideetan dauden lokal edo instalazioak.

2) Aireportuetan, portuetan, tren eta autobus geltokietan edo antzeko lekuetan dauden lokal edo instalazioak, bai eta batez ere gaueko edo goizaldeko ordutegiak dituzten bidaiari edo langileei zerbitzua emateko lokal edo instalazioak ere.

A estos efectos, los titulares podrán fijar el momento a partir del cual dejen de expenderse consumiciones, cesen las actuaciones y pongan fuera de funcionamiento tanto la música, como las máquinas y aparatos de juego, videos o cualquier aparato o máquina similar.

2) Para los espectáculos y actividades recreativas especificadas en el artículo 5 de este Decreto que se celebren en locales cerrados, la propia resolución de autorización establecerá el tiempo de desalojo a partir de la hora fijada para su finalización, en función del aforo máximo autorizado para el espectáculo o la actividad recreativa.

*Artículo 9.–* Período de cierre obligatorio y restricciones.

1) Los espectáculos públicos y las actividades recreativas no podrán iniciarse, antes de las 06:00 horas, salvo que normativas sectoriales dispongan un horario diferente.

2) Entre el horario de cierre o de finalización establecido para los locales o las actividades incluidas en los grupos 3 y 4 del artículo 2 del presente Decreto, sea éste efectivamente realizado o no, y su apertura o iniciación deberá transcurrir un período mínimo de seis horas.

3) En todo caso, queda prohibido el funcionamiento de equipos o aparatos de música, actuaciones, pistas de baile o análogos, antes de las 09:00 horas.

*Artículo 10.–* Consumo de bebidas en el exterior de los locales.

1) Sin perjuicio de limitaciones superiores que pudiera introducir cada ayuntamiento en sus ordenanzas municipales y las licencias para terrazas o similares que hubiera podido conceder, queda prohibida la consumición de bebidas en el exterior de los locales a partir de las 22:00 horas, a salvo lo establecido en el artículo 7 de este Decreto.

2) A estos efectos, y con independencia de la responsabilidad en que pudieran incurrir los consumidores o usuarios, los titulares de los locales impedirán, a partir de la hora citada, que los clientes saquen las consumiciones fuera del local, pudiendo ser sancionados por infracción a los artículos 34 y 33, en su caso, de la Ley 4/1995, de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas, de 10 de noviembre.

*Artículo 11.–* Facultades del Gobierno Vasco para establecer horarios especiales.

La Dirección de Juego y Espectáculos del Departamento de Interior del Gobierno Vasco podrá autorizar ampliaciones al régimen general de horarios establecido en el presente Decreto, en los supuestos siguientes y con las limitaciones que se establezcan en la resolución administrativa correspondiente:

1) Locales o instalaciones situados fuera del casco urbano de las poblaciones o en carreteras.

2) Locales o instalaciones situados en aeropuertos, puertos, estaciones de tren, de autobuses o lugares análogos, y aquellos que estén destinados preferentemente al servicio de viajeros o de trabajadores con horarios nocturnos o de madrugada.

3) Jokorako jarduerak eta zenbait ikuskizun, jarduera edo gertakari, baldin eta berauon ezaugarri berezi edo apartekoak direla eta, ordutegi berezia izatea justifika badaiteke.

*12. atala.–* Udalen ahalmenak ordutegi bereziak ezartzeko.

1) 7.1.c atalean azaldutako kasuetan, udal agintariek bertan ezarritako ordutegi berezia murriztu edo zabaldu ahal izango dute.

2) Ordutegi bereziaren erregimena dagokion udalak argitaratu beharko du, beronen eremua eta egunak zehaztuz, bai eta, hala badagokio, ordutegi horrek izan litzakeen mugak ere.

3) Udal agintariek lokalen kanpoaldean terrazak edo antzekoak jartzeko lizentzia bereziak eman dituzten kasuetan, udalak berak instalazio horietarako ezarri dituen ixteko ordutegiak bete beharko dira. Kasu guztietan dekretu honetan ezarritako mugen barruan egon beharko dute eta beste batzuei eragozpenik sortu gabe.

*13. atala.–* Prozedura administratiboa.

1) Dekretu honen 11 eta 12. ataletan bildutako baimenetarako prozedura laburtua izango da eta jardueren, enpresa elkarteen edo udalen titularrek eskatu ahal izango dute.

2) Ordutegia zabaltzeko eskaria egin eta hamar egun baliodun igaro ondoren, eskudun Administrazioak ez badu erabakirik eman, baimena eman dela ulertuko da. Hori guztia, Administrazio horrek espedientea osatzeko egin ditzakeen errekerimenduen kalterik gabe.

3) Ordutegiak zabaltzeko edo ordutegi bereziak baimentzeko beharrezkoa izango da hirugarren batzuei eragozpenak ez sortzea, ez eta osasun publikoari edo herritarren segurtasunari ere.

4) Ikuskapena eta kontrola egiteko xedez, ordutegiak zabaldu edo murriztuz gero edo ordutegi bereziak ezarriz gero, dagokion Administrazioak, ordutegi horiek indarrean sartu baino lehen, gorabehera horiek jakinarazi egin beharko dizkie udalerrian herritarren segurtasun arloan eskumenak dituzten agintari polizialei.

*14. atala.–* Ikuskapena, kontrola eta zigor erregimena.

1.– 4/1995 Legean ezarritakoarekin bat etorriz, dekretu honetan arautukako jardueren ordutegiei dagokienez, ikuskapen eta kontrolaren eskumena, bai eta zigorrak jartzekoa ere, lizentziak eta baimenak emateko eskumena duen Administrazioarena izango da, Eusko Jaurlaritzari dagozkion eta lege horren 38. ataleko 2 eta 5. idazatietan ezarri diren ahalmenen kalterik gabe.

2.– Arlo honetan egindako arau-hausteak, goian aipatutako 4/1995 Legearen 34.g atalean arau-hauste arin gisa tipifikatutakoak, berrehun mila pezatarainoko isuna jarriz zigortu ahal izango dira.

3) A las actividades de juego y a aquellos espectáculos, actividades o acontecimientos que por sus características específicas o excepcionales, justificaran la implantación de un horario diferenciado.

*Artículo 12.–* Facultades municipales para establecer horarios especiales.

1) En los supuestos recogidos en el artículo 7.1 c), las autoridades municipales podrán reducir o ampliar el horario especial establecido en el mismo.

2) El régimen horario especial que resulte será hecho público por el Ayuntamiento correspondiente, determinando el ámbito y las fechas en las que el mismo sea aplicable, así como las limitaciones que, en su caso, dicho horario conlleve.

3) En aquellos casos en que las autoridades municipales hayan otorgado licencias específicas para la disposición de terrazas o similares exteriores a los locales, se estará al horario de cierre que haya establecido para dichas instalaciones el propio Ayuntamiento, dentro de los límites establecidos en el presente Decreto y siempre que no produzcan molestias a terceros.

*Artículo 13.–* Procedimiento administrativo.

1) El procedimiento para las autorizaciones recogidas en los artículos 11 y 12 del presente Decreto se basará en el principio de sumariedad, pudiendo ser instado por los titulares de las actividades, asociaciones empresariales o Ayuntamientos.

2) Transcurridos diez días hábiles a partir de la solicitud de ampliación, sin que la Administración competente dicte resolución, se entenderá aquella concedida, todo ello sin perjuicio de los requerimientos que aquélla pudiera realizar a efectos de completar el expediente.

3) Serán requisitos para autorizar ampliaciones de horario u horarios especiales la evitación de molestias a terceros, así como problemas relativos a la salud pública o a la seguridad de los ciudadanos.

4) Al objeto de su inspección y control, las ampliaciones o reducciones de horarios, así como los horarios especiales, deberán ser comunicados por la Administración correspondiente a las autoridades policiales con competencias en materia de seguridad ciudadana en el municipio, con anterioridad a su entrada en vigor.

*Artículo 14.–* Inspección, control y régimen sancionador.

1.– De conformidad con lo dispuesto en la Ley 4/1995, la competencia de inspección y control, así como la imposición de sanciones en relación con los horarios de las actividades reguladas en el presente Decreto, corresponderá a la Administración competente para el otorgamiento de licencias o autorizaciones, sin perjuicio de las facultades correspondientes al Gobierno Vasco establecidas en los apartados 2 y 5 del artículo 38 de la misma.

2.– Las infracciones en la materia, tipificadas en el artículo 34 g) de la Ley 4/1995 antecitada como leves, podrán ser sancionadas con multa de hasta doscientas mil pesetas.

3.– Urtebete baino lehenago hirugarren arau-hauste bat eginez gero, aipatutako legearen 33 n) atalean ezarritakoarekin bat etorriz, larri gisa tipifikatuko da, eta honako zigorrak izango ditu: berrehun mila eta bat pezetatik bost milioi pezetarainoko isuna, jarduera edo jarduerak etetea gehienez ere urtebetean, lokala ixtea gehienez ere urtebetean eta jarduera hori egiteko desgaikuntza gehienez ere sei hilabetean. Zigor horiek modu alternatiboan aplikatu ahal izango dira edo metagarriak izan daitezke.

ALDIBATERAKO XEDAPENA

Jendaurreko ikuskizun eta jolas jarduerak arautzen dituen azaroaren 10eko 4/1995 Legearen eranskinean bildutako eta dekretu honetan azaltzen ez diren jendaurreko ikuskizun eta jardueren ordutegia berariaz arautzen ez den bitartean, berauok ixteko ordua dekretuaren 5. atalean agindutakora egokituko da.

INDARGABETZE XEDAPENA

Autonomi Elkartearen Eremuan jendaurreko ikuskizunak eta jolas jardueren ordutegiak eta jarduera horiei buruzko beste alderdi batzuk ezartzen dituen ekainaren 17ko Dekretua eta dekretu horretan egindako akatsak zuzentzen dituen uztailaren 29ko 194/1997 Dekretua indargabetuta geratu dira, bai eta dekretu honetan adierazitakoaren aurka dauden xedapen guztiak ere, baldin eta maila berekoak edo beheragokoak badira.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*– Dekretu hau indarrean sartu eta hilabeteko epean, ez dute baliorik izango Herrizaingo sailburuaren 1988ko otsailaren 11ko eta 1993ko uztailaren 16ko Aginduen arabera ordutegien erregimen orokorra zabaltzeko edo murrizteko eman diren baimenak.

*Bigarrena.*– Dekretu honetan ezarritako ordutegien erregimenari eragiten dioten baimenak, Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoak baldin badira, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren titularraren esku egongo dira.

*Hirugarrena.*– Herrizaingo sailburuak ahalmena dauka dekretu hau garatzeko beharrezkoak diren xedapenak emateko.

*Laugarrena.*– Arlo honetan, salaketa aktak dekretu honen II eranskinean dagoen ereduaren arabera beteko dira.

*Bosgarrena.*– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 1997ko abenduaren 16an.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Herrizaingo sailburua,
JUAN MARÍA ATUTXA MENDIOLA.

3.– La comisión de una tercera infracción en el plazo de un año conllevará su tipificación como grave, de conformidad con lo establecido en el artículo 33 n) de la norma meritada, pudiendo ser sancionada, alternativa o acumulativamente, con multa de doscientas mil una a cinco millones de pesetas, suspensión o prohibición de la actividad o actividades hasta un año, clausura del local hasta un año e inhabilitación hasta seis meses para realizar la misma actividad.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

En tanto no se regule expresamente el horario de los espectáculos públicos y actividades recreativas contenidos en el Anexo a la Ley 4/1995, de 10 de noviembre, de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas y no recogidos en el presente Decreto, su finalización se ajustará a lo preceptuado en el artículo 5 del mismo.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogados el Decreto 140/1997, de 17 de junio, por el que se establecen los horarios de los espectáculos públicos y actividades recreativas y otros aspectos relativos a estas actividades en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y el Decreto 194/1997, de 29 de julio, de corrección de errores del anterior Decreto, así como todas las disposiciones de igual o inferior rango que se opongan a lo dispuesto en el presente Decreto.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*– En el plazo de un mes a partir de la entrada en vigor del presente Decreto, quedarán sin efecto las autorizaciones de ampliación o reducción del régimen general de horarios concedidas de conformidad con las Órdenes de 11 de febrero de 1988 y de 16 de julio de 1993, del Consejero de Interior.

*Segunda.*– Las autorizaciones que afecten al régimen de horarios establecido en el presente Decreto y sean competencia del Gobierno Vasco, corresponderán al titular de la Dirección de Juego y Espectáculos.

*Tercera.*– Se faculta al Consejero de Interior para dictar las disposiciones necesarias en desarrollo del presente Decreto.

*Cuarta.*– Las actas de denuncia en la materia regulada se formalizarán según el modelo que aparece como Anexo II al presente Decreto.

*Quinta.*– El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 16 de diciembre de 1997.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Interior
JUAN MARÍA ATUTXA MENDIOLA.

I. ERANSKINA / *ANEXO I*

GEHIENEZKO ORDUTEGI AIMENDUA
*HORARIO MÁXIMO HORARIO MÁXIMO AUTORIZADO*

(EUSKO JAURLARITZAREN 296/1997 DEKRETUA / *DECRETO 296/1997 DEL GOBIERNO VASCO*)

| MAILA<br>*GRUPO*:......... | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | NEGUA / *INVIERNO* | | UDA / *VERANO* | |
| | IREKI<br>*APERTURA* | ITXI<br>*CIERRE* | IREKI<br>*APERTURA* | ITXI<br>*CIERRE* |
| ASTEGUNAK<br>*DÍAS ORDINARIOS* | | | | |
| OSTIRAL ETA JAIEGUN BEZPERAK<br>*VIERNES Y VÍSPERAS DE FESTIVOS* | | | | |

II. ERANSKINA / *ANEXO II*

ADMINISTRAZIO AGINPIDEDUN IDENTIFIKAZIOA
*IDENTIFICACIÓN DE LA ADMINISTRACIÓN COMPETENTE*

ORDUTEGI AKTA
*ACTA DE HORARIO*

| | | | |
|---|---|---|---|
| TALDE:<br>*UNIDAD:* | OINARRI:<br>*BASE:* | INSPEKZIOAREN EGUNA ETA ORDUA:<br>*FECHA Y HORA DE INSPECCIÓN:* | |
| AGENTEAREN ZENBAKIA:<br>*N.º AGENTE:* | | AGENTEAREN ZENBAKIA:<br>*N.º AGENTE:* | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| ESTABLEZIMENDUAREN IZENA ETA MAILA:<br>*NOMBRE Y CATEGORÍA DEL ESTABLECIMIENTO:* | KALEA:<br>*CALLE:* | HERRIA:<br>*LOCALIDAD:* | TFNOA:<br>*TFNO:* |
| AGERLIAREN IZENA, ABIZENAK:<br>*NOMBRE Y APELLIDOS DEL COMPARECIENTE:* | KALEA:<br>*CALLE:* | HERRIA:<br>*LOCALIDAD:* | NAN:<br>*DNI:* |
| TITULARRAREN IZENA, ABIZENAK:<br>*NOMBRE Y APELLIDOS DEL TITULAR:* | KALEA:<br>*CALLE:* | HERRIA:<br>*LOCALIDAD:* | TFNOA:<br>*TFNO:* |

LEGEAK: abenduaren 16ko 296/1997 DEKRETUA eta azaroaren 10eko 4/1995 LEGEA.
*LEGISLACIÓN: DECRETO 296/1997,de 16 de diciembre. LEY 4/1995 de 10 de noviembre.*

MAKINARIK MARTXAN: BAI/EZ
*MÁQUINAS EN FUNCIONAMIENTO: SI/NO*

| MOTA:<br>*TIPO:* | MODELOA:<br>*MODELO:* | SERIE ZK.:<br>*N.º SERIE:* | BAIMENA:<br>*PERMISO:* | TITULARRA:<br>*TITULAR:* |
|---|---|---|---|---|

IKUS-ENTZUNEZKO EKIPORIK MARTXAN: BAI/EZ
*EQUIPO EN FUNCIONAMIENTO: AUDIO-VISUAL: SI/NO*

| MARKA:<br>*MARCA:* | MODELOA:<br>*MODELO:* | SERIE ZK.:<br>*N.º SERIE:* |
|---|---|---|

Ikuskapeneko unean, ............................................................ orduetan eta ................ minutuetan, lokala irekita zegoen eta barruan ............................................................................ pertsona zeuden eta bezero berrien sartzea onartzen zen: BAI/EZ eta edariak saltzen ziren BAI/EZ.
Bere tadea kontutan hartuz, lokalak .................................................... etarako itxita egon behar zuela ere azpimarratzen da.

*En el momento de la inspección, a las ...................................................... horas y ................ minutos, el local se encontraba abierto y en el interior del mismo había ................................................................... personas y se permitía el acceso de nuevos clientes SI/NO y se expedían nuevas consumiciones SI/NO.*
*Se reseña así mismo, que la hora de cierre del mencionado local atendiendo a su categoría, debería haber sido a las ............. horas.*

OHARRAK / *OBSERVACIONES:*

Izpta.: agentearen zk.: *Fdo.: Agente n.º ...........*

Izpta.: agentearen zk.: *Fdo.: Agente n.º ...........*

Izpta.: interesduna *Fdo.: Interesado.*